



52

keinu
biodibertsitatearen
alde



Argitalpen hau Belgikako Natur Zientzien Institutuak prestatu du frantsesez eta nederlanderaz. Dokumentu honen jatorrizko bertsioa 2009an argitaratu zen 366 gestes pour la biodiversité izenburupean, 2011 Biodibertsitatearen Nazioarteko Urtea ekimenaren esparruan.

Testuen azken idazlea: Charlotte Degueldre
Irudigilea: Claude Desmedt

Copyright © 2009 Institut royal des Sciences naturelles de Belgique
Argitalpen honetan agertzen diren testuen eta irudien kopiak egitea baimenduta dago, eta horretara animatzen zaituztegu, betiere helburu pertsonaletarako edo pedagogikoetarako bada, eta ez helburu komertzialetarako, iturria adierazten bada eta www.jedonnevieamaplanete.be webguneari erreferentzia egiten bazaio. Lehenago adierazitako erabilera ez den edozer erabilerarako, gordeta daude erreprodukzio, itzulpen eta moldatze eskubide guztiak.

Argitalpena Europako Batzordearen Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak itzuli eta moldatu du, «Biodibertsitatea guztiok osatzen dugu» (www.todosomossparte.eu) kanpainaren esparruan. Dokumentu honetan adierazitako iritziek ez dute zertan Europako Batzordearen iritziekin bat etorri.

Euskarazko itzulpena: © 2012. Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen, lurralde plangintza, nekazaritza eta arrantza saila. Eusko Jaurlaritza.
Euskarazko itzulpenaren ardura: Ihobe
Euskarazko itzulpenaren egilea: Mara Mara Taldea

Kopiak egitea baimenduta dago, betiere ez bada helburu komertzialetarako eta iturria adierazten bada.

52 **keinu**
biodibertsitatearen
alde

EUROPAKO BATZORDEAREN
INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

***Europar Batasunari buruz dituzun zalantzei erantzuna bilatzen
lagunduko dizun zerbitzua da Europe Direct***

**Doako telefono zenbakia (*):
00 800 6 7 8 9 10 11**

(*) Hainbat telefonia mugikorreko operadorek ez dute uzten 00800 telefonoetara deitzen edo kobratu egiten dituzte dei horiek.

Europar Batasunari buruzko informazio gehiago Interneteko Europa zerbitzarian aurkituko duzu (<http://europa.eu>).

Lanaren bukaeran fitxa katalogafikoa aurkituko duzu.

Luxenburgo: Europar Batasunaren Argitalpen Bulegoa, 2011

Lege gordailua: BI 2243-2012

%100 PAPER BIRZIKLATUAREKIN EGINDAKO ARGITALPENA

HITZAURREA

Biodibertsitateari esker, alegia, Lurreko bizitza-aniztasunari esker, gure planeta bizitzeko leku egoki eta ederra da. Gutako askok ikusten dugu natura plazererako, inspiraziorako edota aisialdirako iturri gisa, baina bestalde, naturarekiko mendekotasuna dugu elikadura, energia, lehengaiak, airea eta ura lortzeko, finean, ezagutzen dugun bizimodua bizitzeko eta gure ekonomiak mugitzeko beharrezkoak diren elementuak eskuratzeko.

Nahiz eta natura ordezkazina izan, maiz ez gara horretaz jabetzen, eta betirako bermatuta dagoela pentsatzen dugu. Sistema natural ugari beren funtzionamendua kaltetzen duten presioak jasaten dituzte. Askok, gainera, suntsitzeko arriskuan daude. Fenomeno horri biodibertsitatea galtzea deritzogu, eta edonon aurki dezakegu.

Horregatik, Europar Batasunak hori gelditzeko konpromisoa hartu du. Azen 25 urteetan EBk 26.000 eremu babestu biltzen dituen sarea sortu du eta guztira 850.000 km² baino gehiagoko azalera hartzen dute. Sare horri Natura 2000 deritzo, munduko eremu babestuen sare handiena da eta biodibertsitateari ematen diogun garrantziaren proba ere bai. Epe luzerako neurrien bitartez programa historiko hori indartzeko asmo sendoa dugu.

Guztiok egin dezakegu gehiago laguntzeko. Denok egin dezakegu zerbait biodibertsitatea babesteko eta guztion partaidetza beharrezkoa da. Guztiok egin ditzakegu aldaketak gure eguneroko ohituretan, gure bizitza-estiloa guztiz aldatu beharrik gabe. Keinu txiki horiek guztiek asko lagun dezakete.

Gida praktiko honetan ematen ditugun aholkuak pauso hori emateko lagungarriak izatea espero dugu. Tokiko eta sasoiko elikagaiak jatea, uraren kontsumoa murriztea, elikagai-hondakinak baliatzea konposta egiteko edo hobeto ezagutzea gure lurraldean bizi diren animalien eta landareen espezieak... Mundu guztiak ekintza txiki horietako bat edo bat egingo balu, alde handia egingo luke datozen belaunaldientzako baliabide naturalen babesean.

Janez Potočník
Ingurumeneko Europako komisarioa

ZER DA BIODIBERTSITATEA?

Biodibertsitatea gure inguruan dago, eta gu bere zati bat gara. Hiru osagai nagusi ditu:

- ◆ Lurrean bizi diren espezieak: animaliak, landareak, onddoak, algak, bakterioak, baita birusak ere;
- ◆ Espezie berekoen arteko tamaina, forma eta kolore aniztasunak.
- ◆ Ekosistema desberdinak, adibidez, ozeanoak, basoak edota koralezko uharriak, eta bertan bizi diren espezieak eta haien arteko elkarreraginak.

Zientzialariek Lurrean bizi diren 1,9 milioi espezie inguru sailkatu badituzte ere, badakigu benetako espezie kopurua askoz ere handiagoa dela. Horietako asko mikroskopikoak dira, lur azpian bizi dira edo ozeanoen hondotan. Beste asko, oraindik ez dira aurkitu.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA BIODIBERTSITATEA?

Biodibertsitatea 3.800 eboluzio-urteren ondorioa da eta gizakiak bizirik irauteko nahitaezkoa. Naturarekiko mendekotasuna dugu oinarritzko baliabide asko lortzeko, esaterako elikagaiak, eraikuntzarako materialak, beroa, ehun-zuntzak edota sendagaien osagai aktiboak. Naturak bizitzarako oinarritzko funtzioak betetzen ditu. Adibidez, landareak polinizatzen ditu eta airea, ura eta lurra iragazten ditu. Uholdeen aurkako babesa ere eskaintzen du.

Bizitza ezinezkoa litzateke Lurrean, behintzat guk ezagutzen dugun bizitza, oinarritzko material eta zerbitzu horiengatik ez balitz. Zoritzarrez, askotan ahazten dugu naturak eskaintzen diguna. Bizi garen gizarte industrializatueta pentsatzen dugu biodibertsitatea bermatuta dagoela eta betiko egongo den doako zerbaite dela. Baina, benetan naturaren gainean eragiten dugun presioa gero eta handiagoa da. Gizakien ekintzetako asko mehatxu larriak dira espezie askoren bizitzarako.

Biodibertsitatearen aurkako mehatxuen zerrenda oso luzea da: habitatak suntsitzea eta zatikatzea; airea, ura eta lurra kutsatzea; gehiegizko arrantza; baliabideak, basoak eta lurra gehiegi ustiatzea, eta tokikoak ez diren espezieak sartzea... Zer esanik ez klima-aldaketa eragiten duten berotegi-efektuko gasak gero eta gehiago askatzeari buruz.

ZER EGIN DEZAKEGU BIODIBERTSITATEA BABESTEKO?

Liburuxka honetan 52 iradokizun daude urteko aste bakoitzean zerbait egiteko. Zehatzago:

- ◆ Egunero egin ditzakegun gauza praktikoak;
- ◆ Gure komunitateetan sentibilizazioa areagotzea;
- ◆ Ikerketan laguntzea basa-bizitzari eta ekosistemei buruzko datuak erregistratuta.
- ◆ Teknika jasangarriak lorategietan;
- ◆ Eraikuntza eta brikolaje proiektuak.

Biodibertsitateari buruzko informazio gehiago hemen:
http://ec.europa.eu/environment/nature/index_en.htm


LAGUNDU NATURA BABESTEN DUTEN ELKARTEEI.

1. Astea



Elkarte horien helburu nagusia biodibertsitatearen hondatzea gelditzea da, eta hala gertatuko balitz, babestutako biotopoen (basoak, errekek, urmaelak, hiriko lorategiak...) arteko orekari eustea edo haiek berreraikitzea, gizakien ekintzei kalterik egin gabe.

Zer dira ekintza horiek? Espezieen jarraipena egitea, natura-erreserbak sortzea eta kudeatzea, ingurune urriak berreskuratzea, hitzaldiak, natura aztertzeko ibilaldiak, sentsibilizazio-jardunaldiak, ekintza zehatzak (adibidez zapoak salbatzeko ekintzak) antolatzea eta abar.



Ekintza horiek babesteko kide bilakatu edo dohaintzak egin ditzakezu, argitalpenak edota produktuak erosi, naturaren gaineko proiektuetan boluntario gisa parte hartu eta abar.



IBILALDIETAN EZ EGIN KALTERIK ANIMALIEI.

2. Astea



Menditik ibiltzerakoan animaliak bakean utzi behar dira, kosta ahala kosta, batez ere neguan. Beren gordelekuetatik ateratzen badituzu, elikagaiak bilatzen ari direnean ustekabeen harrapatzen badituzu edo hibernaziotik esnatzen badituzu, baliteke dituzten erreserba urriak alde egiteko edo ezkutatzeke erabiltzea. Hori beraientzat oso txarra izan liteke.

Beraz, ez zaitetz inoiz bidetik atera, egin ahalik eta soinurik gutxien eta zu bezalaxe, airea hartzera atera diren animaliak urrutitik ikusi besterik ez egin.



KONTSUMITU PRODUKTU EKOLOGIKOAK.

3. Astea

Nekazaritza ekologikoak lurra agortzea saihesten du, geruza freatikoaren kutsadura murrizten du eta laboreen fauna laguntzailea (erleak, zizareak...) eta inguruko ekosistemak errespetatzen ditu gutxiago erasotzen duten ekoizpen teknikak erabilia, tokiko espezieak landuta eta ongarri ez kimikoak eta pestizidak erabilia.

Gainera, askotan dastamen- edo nutrizio-propietate asko dituzten ahaztutako tokiko espezieei balioa ematen die, adibidez: topinanbuak, antzinako zerealak, sagar bikainak...

Produktu ekologikoak jatea ekologia globaleko filosofiari atxikitzea da. Egiaztatu frutak eta barazkiak tokikoak eta sasoikoak direla (kontserbatzeko eta garraiatzeko baliabide gutxi behar dute-eta) eta ontziratzeke ahalik eta material gutxien erabili dela.



(Ber)egokitzen al dituzu azpiegiturak? Saiatu zaitetz haiek ahalik eta ondoen integratzen ingurune naturalean (jarri animaliak igarotzeko tokiak, utzi animaliei eta landareei euri-uren andelak kolonizatzen...). Ahal den neurrian zaindu edo bultzatu zuhaitzak, heskaiak, urmaelak, lugorriak eta abar egotea...

Eraikinak, akaberek eta altzariak egiteko aukeratu material eta produktu ekologikoak, naturalak, jasangarriak eta birziklagarriak eta, ahal denean, tokikoak. Mugatu energia ez-berriztagarrien kontsumoa eta hondakinak sortzea.

Horrela zure lantokiaren arrasto ekologikoa murriztuko duzu eta, aldi berean, lan-ingurunea, marka-irudia eta kokalekuaren merkatu-balioa hobetuko dituzu.



MURRIZTU IGORRITAKO BEROTEGI EFETUKO GASEN KANTITATEA.

5. Astea



Berotzea, argizatzea, bidaiatzea... Egiten ditugun gauza guztiek berotegi-efektuko gasak sortzen dituzte, baita janzteak eta arasa hartzeak ere, eta gas horiek gehiegizkoak badira planeta arriskuan jartzen dute. Basamortuak handiagoak egiten dira, glaziarrek txikiagoak, itsasoaren maila igo egiten da... Laburrean, ekosistema osoak hondatzen dira.

Murriztu itzazu berotegi-efektuko gasak, ahal den neurrian, sasoiko, tokiko eta etiketa ekologikoa duten produktuak kontsumituta. Energia ez alferrik galtzeko saiazaitez oinez, bizikletaz edota partekatutako garraiobidez mugitzen.

Konpentsatu zure igorpenak biodibertsitateari lagunduta (urmael batekin, zelai loredu batekin edo habi batzuekin...), natura babesteko elkarteei lagunduta edo basotze-proiektuetan lagunduta.



EZ BOTA MUGIKORRA. EDUKI ZUREKIN AHALIK ETA DENBORA LUZEEN.

6. Astea



Kontsolak, ordenagailuak eta mugikorrak egiteko mineral asko behar dira (kobrea, kobaltoa, beruna...) eta horien eskaria gero eta gehiago hazten ari da. Mineral horiek dituzten meategiak planeta guztian zehar daude eta horiek ustiatzeak eragin handia du ingurumenean.

Koltana izeneko mineral ospetsua Kongoko Errepublikatik ateratzen da eta bertako Kivu lakuko biodibertsitate aparta arriskuan dago: azken gorilen, elefanteen, okapien, eta abarren legez kontrako ehiza meatzariak elikatzeko; deforestazio izugarria eraikuntzarako eta berogailuetarako erregaia egiteko egurra lortzeko; meategiak handitzeko, higadura, lurra, ura eta atmosfera kutsatzea... Eta zer esanik ez gatazka armatuei buruz.

Mugikorra edo ordenagailu eramangarria aldatzera
zoazen hurrengoan pentsa ezazu ondo.



EROSI ARRAINA ARDURAZ.

7.
Astea

Hegalaburra, bakailaoa, izokina, mihi-arraina, zapoa... Gaur egun zinez gomendatzen da espezie horiek kontsumitzeari uztea. Gehiegizko arrantzak, harrapaketa-denboraldiak (batzuetan ugalketa garaian) eta arrantza metodo batzuk (itsas ondoak hondatzea eta nahi gabe arrainkumeak hartzea eragiten dutenak) arrain horien populazioa berritzea arriskuan jartzen dute.

Emaiezu berreskuratzeko denbora: kalteberak ez diren arrainak eta itsaskiak kontsumitu. Eman lehentasuna tokiko arrantzako produktuei edo MSC etiketa dutenei.

Etiketa horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero,
ikusi honakoa: <http://www.msc.org/es>



EZ BOTA HONDAKINAK IZADIRA.

8. Astea



Hondakinak izadira botatzeak ingurumenari eragiten dio, eta askotan oso ondorio txarrak izaten ditu.

Hondakin batzuek berehalako ondorioak dituzte: zigarro-mutxikinak eta txikleak horiek jaten dituzten animaliak intoxikatu edo asfixiatzen dituzte, ugaztun eta anfibio txikiak botila hutsetan harrapatuta gelditzen dira, puskatutako kristalek animalia handiagoak zauritu ditzakete eta lupa-efektuaren bitartez suteak sorrarazi.

Beste hondakin batzuek epe luzeko ondorioak dituzte: plastikoen ehunka urte behar dituzte degradatzeko, eta degradatzen direnean substantzia toxikoak askatzen dituzte, pilek lurretik iragazten diren metal astunak dituzte eta geruza freatikoak kutsatzen dituzte...

Beraz, erabili paperontzi publikoak eta birziklatu ahalik eta gehien.



HARTU TOKIKO FAUNA ZURE ETXEAN.

9. Astea



Eraikin bat eraiki edo zaharberritu behar baduzu, saia zaitetz bertan tokiko faunarentzako babeslekuak jartzen.

Inguruan habia egin dezaketen espezieei buruzko informazioa bilatu. Zeintzuk har zenitzake? Ondoren ipini ezazu beharrezko guztia: zulatu ezazu horma zabal bat eta zirrikituak utzi (erle bakarti bat edo batentzat), egin itzazu zuloak adreiluetan (saguzarrentzat), jarri ganbararako sarrera bat kanpoan (hegazti harraparientzat eta saguzarrentzat), jarri habiak teilatu azpian eta balkoietan...


Areagotu gonbidatu berezi horiek agertzeko aukerak: saia zaitetz zure lorategia ahalik eta anitzen egiten, bertan elikagaiak erraz aurki ditzaten; ez itzazu produktu kimikoak erabili (pestizidak eta ongarriak, pinturak, detergenteak...).





Hainbat enpresak, batez ere automobilak egiten dituztenek, harrokeriaz hitz egiten dute beren produktuen bertute «ekologikoez», baina, benetan, ez dute halako bertuterik. Beste batzuek beren irudia ekologikoago egin behar izaten dute beren jarduerak asko kutsatzen baitute edota biodibertsitaterako kaltegarriak baitira (berotegi-efektuko gasak sortzea, instalazioak handitzeko lurra garbitzea, ibaietako ura erabiltzea makineria hozteko...).

Ez zaitzatela engainatu ekologikoegiak diren publizitate kanpainekin. Beharrezkoa bada salatu itzazu. Eta borroka egin, ekologia gaietako aholkularien laguntzarekin, enpresa horiek benetan murriztu dezaten planetan duten eragin kaltegarria.



ETXEAN, ERABILI KUTSATZEN EZ DUTEN PRODUKTUAK.

11. Astea



Araztegietatik pasa ondoren ere, ibaietara iristen den urak fosfatoak, disolbatzaileak, substantzia tentsioaktiboak eta egungo garbigarriek izan ohi dituzten bestelako substantzia kimikoak dituzte. Asko kutsatzen duten osagai horiek eragin latzak izan ditzakete biodibertsitatean (batez ere uretako inguruetan) eta gure osasunean.

Zer egin dezakegu? Aukera itzazu etiketa ekologikoa duten garbigarriak, edo oraindik hobe, erabili ezazu Marseillako xaboia txirbiletan arropa garbitu behar duzun bakoitzean, xaboi beltza lurra garbitzeko, ozpin beroa zikinkeria ateratzeko, sodio bikarbonatoa (ozpinarekin edo gabe) eltzeak, konketak, eta abar arrastorik egin gabe garbitzeko... eta, batez ere, saiatu behar duzuna baino gehiago ez erabiltzen. Bestalde, baliatu zure eskuen trebetasuna.



ZURE PASEOETAN, ERRESPETATU NATURA.

12. Astea



Menditik ibiltzean ez zaitez oso nabarmena izan: egin ahalik eta soinu gutxien, animalia basatiak ikusi nahi badituzu ez eraman kolore biziko arropak eta ez jarri perfumerik.

Ez zaitez inoiz bideetatik atera: horrela animaliak molestatzeko edo landareak, goroldioa, perretxikoak... zapaltzeko aukera gutxiago izango dituzu.

Zakurrarekin bazoaz, eraman ezazu lotuta edo zaindu ez dadila bidetik atera. Ez utzi zaunkarik egiten, bestela inguruko animalia guztiak alde egingo dute-eta. Zure helburua animalioek ikustea bada, hobe izango da zure lagun mina etxean uztea.

Azkenik, ez bota hondakinak izadian eta ez hartu debekatuta dagoen landarerik, objekturik edota animaliarik.





Janari arinaren eta zabor-janariaren gorakadari erantzun gisa jaiotako Slow Food elkarteak agerian utzi du kontsumitzaileengan elikagaiekiko gustua eta jakin-mina pitzeak biodibertsitatea zaintzera garamatzala.

Zergatik ba? Oso sinplea da. Probatu al duzu noizbait txiribi-krema, topinanbu frijitua edota barraskilo-kabiarra? Ba, dastatuko bazenitu, ahaztutako barietateak (tuberkulu horien kasua) eta mehatxatutako espezieak (gaizkata esaterako) babesten lagunduko zenuke.

Elkarte ekogastronomiko horri eta egiten dituzten ekintzei buruzko eta biodibertsitatearen aldeko Slow Food elkarteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, honako helbidean aurkituko duzu: http://www.slowfood.com/about_us/esp/welcome_esp.lasso




BIDAIATZEAN DUZUNEAN MURRIZTU ETA KONPENTSATU IGORRITAKO CO₂ KANTITATEA.

14. Astea



Oporretara zoazenean ere berotegi-efektuko gasak murriztu ditzakezu, horien artean CO₂-a. Oinezko txangoak egin, kanpinetara joan (baina ez libreko kanpaldia) edo ekoturismoa praktikatu. Gertuen dauden tokiak lehenetsi eta bertaratzeko erabili bizikleta, trena edo, zergatik ez, zaldiek tiratako gurdia. Helmugara iritsitakoan jan tokiko eta sasoiko produktuak, murriztu motordun ibilgailuak erabiltzea, saiatu klimatizazioa ez erabiltzen...

Hegazkinez joatea beharrezkoa bada, aukeratu hegaldi zuzenak (aireratzeek erregai asko kontsumitzen baitute). Azkenik konpentsatu bidaian zehar igorritako CO₂-a biodibertsitatea babesteko proiektuak edo zure eskualdea edo urruneko eskualdeak basotzeko proiektuak finantzatzuz.





Zure taldearen kohesioa indartu behar duzu edo, besterik gabe, zure lankideekin atsedean hartzeko gogoaz duzu? Orduan, zergatik ez dituzu biodibertsitatearen aldeko taldeko ekintzak proposatzen?

Zure lantokian antola ditzakezu: inguruko animalien eta landareen errolda egitea, kanpoko aparkalekuan heskaiak eta ezti-landareak landatzea, fatxadan landareak hazten uztea, teilatuan lorategi edo baratza bat egitea, enpresaren eraikinean habiak eta bestelako babeslekuak jartzea...

Naturari buruzko tailerretan ere parte har dezakezu, espezie edo biotopo espezifikoak behatzeko ibilaldiak edo apoak salbatzeko ekintzak egin, baserri ekologikoak bisitatu...






Zizareak elikadura-katearen ezinbesteko elementuak dira. Etengabe birziklatzen dute materia organikoa, esaterako hosto lehorrak eta deskonposizio-prozesuan dauden bestelako landareak. Horrela, kalitate oneko humusa sortzen laguntzen dute eta guk kontsumitzen ditugun fruituak eta barazkiak hazten diren luraren emankortasuna bermatzen dute.

Gainera, beren zuloak lurra harrotzen dute eta, horri esker, sustraiak ondo garatzen dira eta ura azkar iragazten da sakonera landareek xurga dezaten. Bestalde isurketa eta erosio fenomenoak mugatzen dituzte garai euritsuetan.

Zaindu itzazu balio handiko laguntzaile horiek, ongarri edo pestizida kimikoen erabilera mugatuta eta lurra bi kirteneko aitzurraz landuta.




Gaur egun etiketa ekologiko ugari dago (horien artean Europako Etiketa Ekologikoa) hoteletarako, kanpinetarako eta aterpetxeetarako.

Zeintzuk dira etiketak emateko irizpideak? Establezimenduaren kokalekua eta arkitektura (inguruko natura errespetatu behar du), eraikitze erabilitako materialak (ekologikoak, jasangarriak, berriztagarriak, birziklagarriak...), uraren eta

energia ez-berriztagarrien kontsumo mugatuagoa, hondakinak eta haien kudeaketa murriztea...

Eta interesa? Establezimendu horiek kudeatzen dituztenek biodibertsitatea zaintzeari garrantzi handia ematen diote izadia errespetatzen duten aisialdirako jardunaldien bitartez, tokiko produktuak eta laboreak sustatuta...

Informazio gehiago nahi izanez gero ikusi honakoa:
www.ecolabel-tourism.eu



MURRIZTU EDATEKO URAREN KONTSUMOA.

18.
Semana

Ura nahitaezkoa da planetaren eta bertako biztanleen, hau da animalien eta landareen, orekarako. Guztientzako nahikoa dago, baina, zoritxarrez, gaizki banatuta dago eta askotan, gaizki kudeatuta. Planetaren alderdi honetan nahikoa dugu kanila irekitzearekin edateko ura izateko. Ondorioz, denetarako erabiltzen dugu, baita kotxea garbitzeko ere.

Ura aurrezteko landareak euri-urarekin urezta daitezke, hobe egunaren bukaeran (lurruntzea saihesteko) eta erabilitako urari (platerak garbitzekoari, komunekoari, dutexakoari) probetxua atera tangarako, lurra garbitzeko eta abar. Ureztatzeko ere, iragazi ondoren.




PROPOSATU UDALARI LOREZAINITZA EKOLOGIKOA PRAKTIKATZEA.

19.
Astea



Udalerri batzuek dagoeneko hartzen dituzte horrelako neurriak bazterbideak eta gal-tzadak kudeatzeko eta landatzeko orduan; ondorioz, biodibertsitateari laguntzen diote.

Zure udalerrian ez bada hala, proposatu dagokion agintari eskudunari aplikatzeko errazak diren zenbait printzipio: tokiko espeziak besterik ez landatzea (loreen kasuan landare bizikorrek urterokoek baino lan gutxiago eskatzen dute); ongarrri eta pestizida kimikoak alde batera uztea eta horien ordez produktu biologikoak erabiltzea; lurra lurrusteletz eta landarez estaltzea belar txarrak azaltzea mugatzeko eta ureztatzea murrizteko; landare-hondakinak konpostatzea eta hortik ateratako ongarrria udazkenetik aurrera erabiltzea lurra elikatzeke; belarra berandu moztea babesleku batzuk gordetzeko...





NBEk maiatzaren 22a aukeratu du Biodibertsitatearen Nazioarteko Eguna izateko. Aukera ezin hobea da publiko orokorra eta politikaren mundua sentsibilizatzeke biodibertsitatearen garrantziaren eta egoeraren, jasaten dituen erronken eta mehatxuen eta babesaren gainean.

Urtero gai jakin bati ematen zaio garrantzi berezia: 2008an biodibertsitatea eta nekazaritza, 2009an espezie exotiko inbaditzaileak, 2010ean biodibertsitatea eta garapena, 2011n biodibertsitatea eta basoak...

Ospatu ezazu egun hori antolatutako jardunaldietan parte hartuta (erakusketak, hitzaldiak...). Piknik ekologiko bat edo tokiko fauna eta flora behatzeko ibilaldi bat ere antola dezakezu, musika berdeko kontzertu bat...

Informazio gehiago nahi izanez gero ikusi honakoa:
<http://www.cbd.int/idb/>





Gustatuko litzaizuke atzerriko oporrak baliatzea biodibertsitatea babesteko? Egin zaitez ekoboluntario.

Turista arruntek ezagutzen ez dituzten lekuak ezagutuko dituzu eta, aldi berean, natura babesten duten elkarteekin lan egin ahalko duzu beren ikerketa eta kontserbazio lanetan. Eta horretarako ez duzu zertan biologian edo ingurumen zientzian aditua izan:proposatzen diren jardunaldiak guztion eskura daude.

Pentsatu: Mediterraneoko zetazeoen errolda egin zenezake, Errumaniako hartzak babestu, Hegoafrikako marrazo zuri handien populazioa ikertu, Tailandian giboien, makakoen eta lorien birpopulaketan lagundu, Indian nekazaritza ekologikoa sustatu...



SORTU BABESLEKU NATURAL BAT BIODIBERTSITATEARENTZAT.

22.
Astea

Nola bihur daiteke lorategi bat (zure etxekoa, haurren eskolakoa edo enpresakoa) biodibertsitatearentzako babesleku natural?

Hasteko, baztertu ongarri eta pestizida kimikoak.

Lorategiko bazter batean hazten utzi berez jaiotako landareei eta bertan belarra berandu moztu: Horri esker landare-espezieak ugaltu eta dibertsifikatuko dira, eta animalia askok babes gisa erabiliko dute.

Egin urmael bat eta gorde zuhaitz lehor bat zuloetan animalia haitzulotarrek babesa aurki dezaten. Prestatu egur pilo bat eta harri pilo bat ugaltun txikientzat, anfibioentzat eta hainbat ornogaberentzat.

Dibertsifikatu heskaiak tokiko espezieekin. Sartu ezti-landareak, intsektu ugari erakarriko dute-eta.





Detergenteen antzera, gaur egungo kosmetiko gehienek biodegradagarriak ez diren sustantzia kimikoak dituzte osagaien artean (kontserbagarriak, perfume sintetikoak, tentsioaktiboak...), beraz, biodibertsitatea kaltetzen dute (batez ere uretako inguruetakoa, hondakin-uren bitartez iristen baitira horietara).

Erabili kosmetiko ekologikoak: garbitu zaitez Marseillako xaboiarekin, lurrindu bainugela izpiliku esentzia-olio tanta batzuekin, garbitu zeure azala kamamila edo nabar-lore egosaldi batekin, esfoliatu gari-zahiarekin edo olo-zahiarekin, hidratatu ekilore- edo oliba-olioarekin... Zure hortzetako pasta ere etxean egin dezakezu, uste duzuna baino errazagoa da!



AURKITU NATURA HIRI INGURUNEAN.

24.
Astea



Pentsatzen dugunaren kontra, batzuetan biodibertsitatea ugariagoa da hirian landa-inguruneetan baino, soroetan eta basoetan monolaborantzak nagusitzen baitira.

Harrigarria den arren, biotopoak oso ugariak izan daitezke hirian: Lorategi publiko eta pribatuak, urmaelak, parkeak, zuhaitzez beteriko kaleak eta hiribideak, alfer-lurrak, lugorriak, trenbidearen ingurua, erreken ertzak... Baita teilatu berdeak, terrazak, fatxadak eta lorez beteriko balkoiak ere. Espaloi-ertzetako, eraikinen behealdeetako edo harresietako zirrikitu kaskarrenak ere landare basatiek kolonizatzen dituzte.

Baina biodibertsitate hori kaltebera da: zaila da hormigoi-makinen eta zapalgailuen aurka ezer egitea...



INFORMA ZAITEZ KOTOI EKOLOGIKOAREN LABORANTZAREN GAINEAN.


25.
Astea



Kotoiaren laborantza intentsibo tradizionalak erein daitekeen azaleraren % 3a besterik ez du hartzen, baina, aldiz, mundu guztian saltzen diren intsektiziden % 25a erabiltzen du. Ingurunearentzako eta gizakiarentzako oso kaltegarria den praktika da: lurzorua pobretzea, deforestazioa, geruza freatikoak kutsatzea, nekazaritzan lan egiten dutenak eta tokiko espezieak arriskuan jartzea sustantzia toxikoak direla eta...

Bestalde, kotoi ekologikoaren laborantza estentsiboak ongari eta pestizida naturalak erabiltzen ditu, ur gutxiago behar du, luraren emankortasuna babesten du (beste labore batzuekin txandakatzen delako), eta leunagoak eta iraunkorragoak diren ehunak dituen kotoia ekoizten du.

Gainera, ekoizten den momentutik jantzi bihurtu arte ez dituen tratamendu kimikoak jasaten, kotoi ekologikoak ez ditu alergia sortzen.







Tokian ekoiztutako elikagaiak jaten badituzu, tokiko espezieak lantzen edo hazten dituzten nekazariei laguntzeaz gain, garraioak sortzen duen kutsadura ere murriztuko duzu: ona da, bai tokiko ekonomiarako, bai biodibertsitaterako.

Baina saiatu ez jaten arriskuan dauden espezieekin egindako platerak (dortoka-haragia, hegalabur-sushia, itsas luzokerra, animalia basatien haragia...) eta ekoiztean tokiko biodibertsitatean eragin txarrak dituzten elikagaiak (gutxieneko tamaina edo kupoak errespetatzen ez dituzten arrantza eta ehiza, azalera handia deforestatzea behar duten laboreak...).

Ez onartu errinozeroen adarrekin, elefanteen hortzekin, tigreen hezurrekin edo erraiekin, orein musketadunen musketarekin eta tankerakoekin egindako betiko erremedioak edo kosmetikoak.




Ikusi hemen arriskuan dauden espezieen zerrenda:
<http://www.cites.org/esp/index.shtml>
www.iucnredlist.org



Estatu Batuetako Center for Biological Diversity elkarteak mundu osoa egungo biodibertsitatearen krisiaren gainean sentsibilizatzeko modu originala proposatu du. Dagoeneko eskuragarri dituzu, eta doan, animalia arraroen eta arriskuan dauden edo egon litezkeen animalien soinuekin egindako mugikorrentzako doinuak.

Belatz handiaren alaraua, panda hartz erraldoi baten marmarra, mazopa baten kantua... Edozein doinu aukeratuta ere inguruan dituzunak harrituta utziko dituzu. EEta arriskuan dagoen zer animalia den azaldu beharko diezu...

Doinu horiek behera kargatzeko eta dagozkien animaliei buruzko fitxak irakurtzeko (ingelesez) ikusi: www.rareearthtones.org



ERABILI EGUZKITARAKO KREMA MINERALAK.

28.
Astea



Eguzkitarako krema gehienek alergia sor ditzaketen UV iragazki kimikoak dituzte. Gainera, horiek itsasoetara, lakuetara edo ibaietara iristen direnean animalietan (gizakia barne) hormona-desorekak eragin ditzakete. Eta hein batean koralak zuritzearen arduradunak ere badira.

Hainbat eremu turistikotan, esaterako Mexikoko Xel-Há ur-parkean, oso serio hartu dute mehatxu hori: han eguzkitarako krema mineralak erabiltzen besterik ez dute uzten. Ez dira besteak bezain ondo zabaltzen eta batzuetan arrastoak uzten dituzte iragazki mineralak direla-eta, baina eraginkorrak dira. Eta, zalantzarik gabe, zuretzeko eta naturarentzako ez dira hain toxikoak.

Ba al dago beste aukerarik? Egin ezazu igeri soinean kamiseta batekin edo neopreno-zko traje batekin...





Lorategi pribatuak hirietako gunee berdeen zati handi bat dira. Askotan etxadietan uharte berdeak osatzen dituzte, hormatxoekin eta hesiekin itxita egoten baitira. Proposatu zure bizilagunei lorategi batetik bestera igarotzeko tunel txiki batzuk egitea azpialdetik adreilu bat edo bi kenduta. Horrela trikuak, satitsuak, igelak, apoak... pasa ahal izango dira.

Eta uharte horiek beren artean lotzeko, proposatu udal-agintariei kaleen zuhaitzak landatzea (urtxintxentzako sokaz egindako zubia egin daiteke kaleen gainetik) edo lurpeko pasabideak («apobideak») egitea irtenguneen azpian.



LORATEGIRAKO, EROSI ZIURTATUTAKO EGURRAREKIN EGINDAKO ALTZARIAK.

**30.
Astea**



Egurak gutxienez bi abantaila ditu: plastikoa baino iraunkorragoa da, eta ez dator petroliotik. FSC edo PEFC baso-ziurtapeneko zigilua duten altzariak erosten badituzu ziur jakingo duzu altzariok egiteko erabili den egurra kudeaketa jasangarria duten basoetatik datorrela eta ez biodibertsitatean atzerapena jasaten ari diren baso epeletatik edo gehiegi ustiatutako ohian tropikal hezeetatik.

Ziurtatutako egurren artean, lehenetsi tokiko espezieenak: exotikoak bezain gogorrak dira baina garraioak energia gutxiago behar du, beraz, gutxiago kutsatzen dute. Eta tratamenduren bat ematea erabakitzen baduzu, aukeratu liho-olioarekin, erle-argizariarekin edo landare-argizariarekin egindako produktu naturalak.

Informazio gehiago nahi izanez
gero ikusi honakoak:
www.fsc.org
www.pefc.es





Zergatik? Ganadua hazteko beharrezkoa da larreak izatea edo bazka ekoiztea (soja, artoa, erremolatxa, koltza...). Ondorioz, nekazaritzako lurzati handiak hartzen dira, askotan basoen kalterako. Gainera, bazka-laboreek ur eta pestizida asko eskatzen dituzte eta, ondorioz, lurra agortu eta geruza freatikoak kutsatu egiten dira.

Eta hori ez da dena... Hausnarkariek metano (berotegi-efektuko gasen artean okerrenetakoa) asko sortzen dute digestioa egiten duten bitartean, batez ere, beren elikadura proteina ugari duten landareetan oinarritzen bada, esaterako sojan.

Azkenik, haragi gehiegi jatea osasunerako kaltegarria izan daiteke (hiperkolesterolemia, minbizia, diabetesa...).

Asteko zenbait egunetan haragiaren ordez jan itzazu dilistak, arrautzak, gaztak, barazkiak, frutak...



OPORRETAKO OROIGARRIAK ERANTZUKIZUNAREKIN EROSI.

**32.
Astea**

Begiratu oporretatik ekarriko dituzun oroigarriak ez datozela arriskuan dauden espezieetatik. Ez itzazu erosi koralez, marfilez, itsas dortoken oskolez, Brasilgo palisandro-egurrez (Dalbergia nigra)... egindako irudiak.

Baliteke gauza batzuk (krokodilo larruarekin egindako poltsak, tximeleta-hegalekin egindako koadroak...) gatibutasunean hazitako animaliekin edo ingurune artifizialetan hazitako landareekin eginak izatea. Ez itzazu erosi CITES baimena ez badute: aduana pasatzeko behar-beharrezkoa den egiaztatgiri horrek objektu horren salmenta onartua dagoela eta biodibertsitatea arriskuan jartzen ez duela bermatzen du.

CITES nazioarteko hitzarmena da, galzorian dauden animalia- eta landare-espezieen salerosketa arautzen duena.

Informazio gehiago hemen:
www.cites.org



EZ EGIN EKARPENIK ITSAS ZABALEKO «HONDAKIN UHARTEEI».

33.
Astea

Itsas korronteek gizakiek sortutako benetako hondakin-uharteak eratzen dituzte itsaso eta ozeanoetan. Ozeano Bareko hondakin-geruzak (The Great Pacific Garbage Patch) bakarrik ia 3,5 milioi km² neurtzen ditu.

Uharte horiek gehienbat plastikoz osatuta daude. Material horrek 500 eta 1000 urte artean behar ditu degradatzeko (bitartean substantzia toxiko asko askatzen ditu) eta arraiak, dortokak, hegaztiak eta itsas ugaztunak ito ditzake plastiko zatiak tragatzeagatik, harrapakinak direlakoan.

Zer egin dezakegu? Murriztu plastikoen erabilera (poltsak, botilak) ez itzazu izadira bota (naiz eta itsasotik urrun egon) eta hitz egin zure gertukoei hondakin uharte horiei buruz, ez dira oso ezagunak eta.





Egunero ehunka baso hektarea desagertzen dira planeta osoan. Lantzeko eta bizitzeko guneak zabaltzeko botatzen dira basoak, edo eraikuntzarako eta altzariak egiteko egurra ateratzeko.

Hainbat GKEk basoberritze proiektuak antolatzen dituzte eskualde kaltetuenetan. Lagundu erakunde horiei dohaintza baten bitartez eragin ekologiko positiboa badute (basamortutzearen, lur mugimenduen eta abarren aurkako borroka), tokiko biodibertsitatea hobetzen badute (arriskuan dauden landare-espezieak landatzea, habitatzen zatitzearen aurkako borroka. ..) eta tokiko herrien laguntza badute. Edo, zergatik ez, lagundu proiektua dagoen lekuan bertan ekoboluntario gisa.





Hirian, eta mendian ere, errepideen, kaleen eta lorategien argiztapenak hainbat izaki biziduni (gizakiari, azeriei) gauean zehar beren jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzen die.

Argi artifizialak, ordea, aztoratu egiten ditu beste hainbat espezie. Ikusmena gaueko bizitzarako egokituta duten animaliak, hain zuzen ere. Hontzek, arratoiek eta beste batzuek zailtasunak izaten dituzte gauez oztopoak, harrapakinak eta harrapariak ikusteko. Hegazti migratzaileek orientazioa galtzen dute. Gaueko tximeletak kale-argien inguruan jirabiraka ibiltzen dira guztiz nekatu arte. Ipurtargiek ez dituzte emeen argi-seinaleak ikusten, eta ondorioz, ezin izaten dira ugaltu...

Beraz, aukeratu itzazu itsutzen ez duten argiak lorategia, terraza, ataria eta abar argitzeko, eta jarri itzazu lurrera begira. Eta ez ahaztu kanpora zoazenean haiek itzaltzeaz.





Taldeentzako sukaldeek pertsona asko elikatzen dituzte: armada, enpresa, eskola, haurtzaindegia, ospitalea, zaharren egoitza...

Konbentzitu itzazu zure jangelako arduradunak tokiko produktu ekologikoak erosi, sasoiko fruta eta barazkiak eman, haragia eta arraina murriztu, eta zerealekin, leguminosoekin, arrautzekin eta abarrekin egindako platerekin ordezkatu ditzaten, ahaztutako barietateak sar ditzaten (topinanbua, arbi-aza...); eta egin gabeko hondakinak (azalak, arrautza-oskolak) murriztu eta konposta ditzaten...

Sukaldarien laguntza beharrezkoa izango da, baina biodibertsitatearentzat onorio positibo ugari izango ditu... baita zure osasunarentzat ere!



PARTE HAR EZAZU «LANDA DEZAGUN PLANETARENTZAT» KANPAINAN.

37.
Astea

Zuhaitzek elikadura, erregaiak, eraikuntzarako materialak, zuntzak eta sendagaiak ematen dizkigute. Hainbat ugaztuni, hegaztiri, ornogaberi, goroldiori, onddori... babesa ematen diete. Gas karbonikoa biltzen dute, oxigenoa askatzen, higadura eragozten, lurraren hezetasuna mantentzen, tenperatura hainbat gradutan jaisten, airearen hezetasun-indizea igotzen dute eta klimaren oreka mantentzen laguntzen dute.

Baina, gero eta handiagoa den deforestazio prozesuaren mehatxua dute beren gain. Deforestazioaren ondorio kaltegarrien aurka borroka egiteko parte har ezazu Ingurumenerako Nazio Batuen «Landa dezagun planetarentzat» programan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi hemen: <http://www.unep.org/billiontreecampaign/spanish/index.asp>





Errepideen ingurumen-kalitatea hobe dezatela eskatu tokiko agintariei. Zer egin dezakete?

Ingurunearen gainean duten eragina txikitzen duten errepideak diseinatu.

Estaldura isilagoak eta birziklatutako materialekin egindakoak aukeratu.

Egokitutako argiztapena jarri (itsutzen ez duena, lurrera begira, eguzki-sentsoreekin...).

Animaliak igarotzeko pasaguneak sortu edo zaindu (apoa, katagorriak, oreinak...).

Errepideetan zehar heskai lodiak landatu, batez ere animaliak ekoduktoetara bideratzeko, eta hein batean airearen kutsadura, hots-kutsadura, eta argi-kutsadura xurgatzeko.

Bazterbideen mantentze-lanak behar den momentuan egin (zuhaitzak eta heskaiak habiagintzako garaietatik kanpo inautsi, belarra berandu moztu...).



EZ EROSI LEHORREAN GARBITU BEHAR DEN ARROPARIK.

39. Astea



Tindategi gehienek perkloroetilenoa (edo tetrakloroetilenoa) erabiltzen dute. Disolbatzaile hori toxikoa da erabiltzen dutenentzat: azala eta mukosak narritatzen ditu, buruko mina eta konortea galtzea eragiten du, organismoan metatu egiten da eta gerta liteke minbizia sortzea.

Normalean zirkuitu itxian erabiltzen den arren, geruza freatikoetan eta ibaietan aurkitzen da. Gainera, oso kaltegarria da ingurumenarentzat, batez ere, ekosistema urtarrentzat...

Gaur egun produktu biodegradagarriak bakarrik (batez ere ura) erabiltzen dituzten oso tindategi ekologiko gutxi daude.

Orduan, zein da konponbidea? Saiatu lehorrean garbitu behar den arroparik ez erosten.





Hirian teilatu berdeek intsektu eta hegazti askorentzat babesa eskaintzen dute. Baina teilatu horien onurak harago doaz: euri-uren parte handi bat biltzen dute, giroko airearen kalitatea hobetzen dute, eraikinak tenperatura aldaketa handien kontra babesten dituzte, eta gainera, nolabaiteko isolamendu akustikoa ematen dute.

Landareak teilatu motaren arabera (laua edo aldapa txikikoa izan behar du), jasan dezaken pisuaren arabera, eta landareak zaintzeari eskainiko diozun denboraren arabera (goroldioak, landare zukutsuak eta gramineoak mantentzeko lanak urtean behin bakarrik egiten dira) aukeratzen dira.

Emaitza ezin hobea izateko eskatu aholkua enpresa espezializatu bati.



EZ SARTU TOKIKOA EZ DEN ESPEZIERIK IZADIAN.


41. Astea



Nahita edo nahi gabe egiten bada ere, animalia exotikoak izadian sartzea arazo bat izan daiteke. Horietako hainbat animalia, perikitoak eta ur dortoka batzuk esaterako, tokiko girora oso ondo moldatu eta ugaltzen dira. Landare askorekin gauza bera gertatzen da (Fallopia japonica, Pampako luma...)

Tokiko ingurunean landare horien populazioa kontrolatuko duen harrapari naturalik ez dagoenez, espezie exotiko batzuk oso inbaditzaile bilakatzen dira, eta tokiko landareak arriskuan jartzen dituzte. Gainera, espezie inbaditzaile horiek ondorio kaltegarriak izan ditzakete ekonomian eta gizakion osasunean. Toki batean finkatzen direnean oso zaila eta garestia izaten da horiez libratzea.

Beraz, etxean espezie exotikorik baduzu, kontu handia izan ez daitezen gure ingurunean libre geratu.



EZAGUTU BIODIBERTSITATEAREN «PUNTU GORIAK».

42.
Astea



Eskualde horiek aberatsenetarikoak dira biodibertsitateari dagokionez, gutxi gorabehera planetako landareen, hegaztien, ugaztunen, narrastien eta anfibioen % 60 biltzen baitituzte (erdia inguru espezie endemikoak dira, zera da, eskualde horietako berezkoak), baina mehatxatuenetarikoak ere badira: dagoeneko galdu dute oinarritzko landaretzaren % 70 gutxienez, eta bertan bizi dira galzorian dauden espezieen ia % 75.

Gaur egun lurreko 34 «puntu gori» daude (itsasokoak oraindik ez dira identifikatu). Gune horietan ekintzara pasatzea premiazkoa da. Beraz, eman zure laguntza eskualde horietan lan egiten duten natura babesteko elkartei.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi honakoa: www.biodiversityhotspots.org






Lortu ezazu zure enpresak ingurumenean duen eragina konpentsatzea (CO₂ isuriak, ur korrante baten ondoan egotea...) edo biodibertsitatearen aldeko konpromisoa areagotzea.

Nola? Natura babesteko elkarteei (ekosistema jakin batzuk berreskuratzen dituztenei, arriskuan dauden espezieak babesten dituztenei...) diru-laguntzak emanda,

inbentario- eta kontserbazio-programak finantzatuta;
irabaziak lehengaiak edo
baliabide genetikoak eman
dituzten hiru garren munduko
herrialdeekin banatuta;
biodibertsitatea zainduko duen
fundazio bat sortuta, langileak
inplikaturik, lekura bertara
bidalita...



ZABALDU INGURUMEN ZERBITZUEN ORDAINKETA.

44.
Astea

Nekazari bati ordaindu egiten zaio nekazaritzarako azalera handitzeko baso bat ez botatzearen truke, ondorioz, irabazi gutxiago izango dituen arren. Horri esker, basoak isurketa urak xurgatzen, CO₂-a atzematen eta O₂ bihurtzen, hainbat espezieri babesa eta elikadura ematen... jarraituko du. Ingurumen-zerbitzuak ordaintzearen adibide bat da hori.

Printzipio berritzaile honek lortu du, dagoeneko, nolabaiteko arrakasta, naiz eta oso zaila den hainbat ingurumen zerbitzuren balio finantzarioa zehaztea.

Egoki deritzozu?

Orduan azaldu mundu guztiari. Baliteke kasu egitea...



ANTOLATU GARBIKETA JARDUNALDI BAT AUZOAN.

**45.
Astea**



Antolatu garbiketa jardunaldi bat auzokoekin eta tokiko agintarien laguntzarekin.

Kendu zuhaitzen adarretan harrapatuta gelditu diren poltsak eta garbitu zaborra (potoak, botilak, pneumatikoak, telebista-pantailak, pintura poteak...). Saikatu hondakinak eta eraman garbigunera.

Honela ur-korronteetako edo alfer-lurretako ekosistemen kutsadura murriztuko duzu. Gainera, animalientzako arrisku asko saihestuko dituzu, adibidez, kristalekin zauriak egitea, janariarekin nahastutako plastiko zatiekin asfixiatzea...






Kontsumitu paper eta kartoi gutxiago, horrela basoak babestuko dituzu, papergintzan egiteko erabilitako orrien alde zuria. Ahal denean, berriro erabili gutun-azalak edo gorde erosketarako zerrenda, mezuak eta abar idazteko.

Dokumentu bat inprimatu behar duzunean erabili paperaren bi aldeak edo zirriborroak egiteko erabilitako orrien alde zuria. Ahal denean, berriro erabili gutun-azalak edo gorde erosketarako zerrenda, mezuak eta abar idazteko.

Ahal baduzu erabili FSC edo PEFC etiketa duten paper birziklatuak (koadernoak, komuneko papera, paper pintatua...), edo bestelako aukerak, adibidez telazkoak (ezpainzapiak, eskuzapiak, poltsak...) edo linean dauden dokumentuak (gida elektronikoak, banku-eragiketen laburpenak...).

Utzi irakurritako liburuak, egunkariak edo aldizkariak beste irakurle batzuei.

Eta, nola ez, birzikla ezazu erabilitako papera eta kartoia.





Interneten ibiltzea bezain erraza den keinu batekin biodibertsitateari asko lagun diezaiokezu. Hainbat bilaketa-tresnak egunero iradokitzen dute planetaren aldeko keinu bat. Beste batzuek jasotzen dituzten bisitak zenbatzen dituzte eta 100 edo 500 bisitako zuhaitz bat landatzen dute. Beste batzuek atzealde beltza erabiltzen dute (zuria baino energia gutxiago kontsumitzen baitu) edo publizitatearen bitartez jasotzen duten dirua, edo behintzat, zati bat, natura babesteko elkarteei ematen diete.

Horien bitartez aztarna ekologikoa ere kalkulatu daiteke, hegazkinez egiten diren bidaietan isuritako CO₂-a konpentsatzeko programak finantzatu, etiketa ekologikoei buruzko informazioa jaso; biodibertsitatearen babesarekin zerikusia duten esperientziak partekatu blogen, foroen, lineako gizarte-sareen eta abarren bitartez.





«Tokijale» izateko zure eskualdean ekoiztutako elikagaiak besterik ez dituzu jan behar. Horrela garraioaren ondorioz atmosferan isurtzen den CO₂ kopurua murrizten lagunduko duzu (asko dira berotegi-efektuko gasen igoerak sortutako klima-aldaketa dela-eta desagertu daitezkeen animaliak eta landareak) eta tokiko espezieak lantzen dituzten ekoizleei lagunduko diezu.

Ez dago esan beharrik horrek sasoiko frutak eta barazkiak kontsumitzea dakarrela berekin. Horiek zapore hobea izaten dute (batez ere ekologikoak badira) nazioarteko baliokideek baino (lantzeko ongarrri eta pestizida kimiko asko erabili ohi dira eta garraioak asko kutsatzen du), beraz, aldagetarekin ez duzu galduko.






Sendagaien osagai aktiboen zati handi bat komunetik behera kanporatzen dugu. Substantzia horiek urak araztegieta jasotzen dituen tratamenduekiko erresistenteak izaten dira, eta ibaietara eta itsasoetara joaten dira, eta ureko fauna eta flora erasotzen duten.

Oraindik ez dira ondorioak ondo ezagutzen, baina, adibidez, badirudi pilula-antisorgailuen estrogeno sintetikoekin kontaktuan dauden arrain batzuk hermafrodita bihurtzen direla.

Zer egin dezakegu? Sendagaiak behar-beharrezkoak diren kasuetan bakarrik kontsumitu (antibiotikoak ez dute ezertarako balio infekzio birikoen kasuan) eta erabiltzen ez ditugunak edo iraungita daudenak farmaziara eraman (ez itzazu zakarrontzira bota, ezta komunetik behera ere).





Opari bat egiteko ideia bat behar duzu? Biodibertsitateari buruz eta hark ematen dizkigun zerbitzuez eta haren garrantziaz hitz egiteko aukera emango dizuten gauzak aukeratu. Planetarentzat oso garrantzitsua den gaia horri ekiteko modu atsegina da.

Brikolajea gustuko dutenei oparitu pintura naturalei buruzko gidaliburu bat, gourmetei jan daitezkeen loreei buruzkoa, ibiltariei ekoturismoari buruzkoa, naturalistei prismatikoak...

Alepoko xaboi batekin detergente naturalekiko interesa piztuko duzu. Bonboi ekologiko kaxa batekin palmondoaren laboreak Indonesian eta Malaysian eragiten dituen arazoak aurkezteko aukera izango duzu (baita tximino handienganako mehatxuaz ere).




JARRI IZENA ESPEZIE BERRI BATI.

51.
Astea

BIOPAT (Patrons for Biodiversity), Alemaniako hainbat institutuk eta zientzia-museok babesten duten ekimena da. Aurkitu berri den animalia edo landare espezie bati (igela, tximeleta, armiarma, garoa, orkidea...) zure izena edo familiako norbaitena jartzea proposatzen du dohaintza baten truke.

Horrela, biodibertsitatearen kontserbazioarekiko duzun konpromisoa betiketuko duzu. Aldi berean, ikerketa taxonomikoari (hau da, espezie berriak deskribatzea) eta espezie berri horiek aurkitu diren herrialdeetan izadia mantentzeko garatzen ari diren ikerlanei eta ekintzei lagunduko diezu.

Ekimen honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi hau:
www.biopat.de



JASO NATURA 2000 PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA.

**52.
Astea**

Nekazaritza, basogintza, industria, turismoa... Horiek guztiak izan daitezke habitat naturalak, esaterako zohikaztegiak, otalurrak, pagadiak, hariztiak eta abar hondatzearen arduradunak, eta ondorioz, animalia eta landare espezie askoren atzerapausoaren arduradunak.

Europako Natura 2000 programaren helburua espezie horiek eta bizi diren gune naturalak zaintzea da, giza jarduerekin harmonian. Zer baliabide erabiltzen dira horretarako? Biotopoak berritzea, tokiko espezieak berriro sartzea, ikerketa eta heziketa ekintzak garatzea...

Natura 2000 ekimenari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi honakoa: ec.europa.eu/environment/nature



Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu honako hauek:

Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

<http://www.ihobe.net>

Euskadiko Biodibertsitate Zentroa

<http://www.torremadariaga.net>

Natura eta biodibertsitatea

http://ec.europa.eu/environment/nature/index_en.htm

Natura 2000 sarea

http://ec.europa.eu/environment/nature/naturazoo/index_en.htm

Biodibertsitatea babesteko kanpaina

http://ec.europa.eu/environment/biodiversity/campaign/index_es.htm

Dibertsitate biologikoari buruzko hitzarmena

<http://www.cbd.int/>

Belgikako Natur Zientzien Institutua

<http://www.sciencesnaturelles.be/>

Zerbitzu Publiko Federala

Osasuna, elikakatearen segurtasuna eta ingurumena

<http://www.health.belgium.be>

Europako Batzordea

52 keinu biodibertsitatearen alde

Luxenburgo: Europako Batzordearen Argitalpen Bulegoa

2011 – 60 or. – 15 x 15 cm

Lege gordailua: BI 2243-2012

Argitalpen hau doan eskatu daiteke izakinak agortu arte:

Euskara eta Gaztelerazko aleak:

Euskadiko Biodibertsitate Zentroaren bitartez, **946 870 402** deituz

Ale bakar bat eskatzeko:

EU Bookshop-en bitartez (Europar Batasuneko argitalpenetarako lineako sarbidea):

[http:// bookshop.europa.eu](http://bookshop.europa.eu)

Ale bat baino gehiago:

Gertuen duzun Europe Direct informazio-sare nazionalaren bulegoaren bitartez:

http://europa.eu/europedirect/meet_us/index_es.htm

IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Urkizo Zumarrakalea, 36, 6^a, 48011 Bilbao (Bizkaia)

Telefonoa: 94 423 07 43

Emaila: info@ihobe.net

Webgunea: www.ihobe.net

Euskadiko Biodibertsitate Zentroa

San Bartolomé, 35. 48350 Busturia (Bizkaia)

Telefonoa: 94 687 04 02

Emaila: info@torremadariaga.org

Webgunea : www.torremadariaga.net



Biodiversidad
TODOS LOS DIAS



Oficina de Publicaciones